

## O A R K E R A B I

## On Kanpion ek dionaz Euskal-Esnalean

Izan diteke, iñilik dauden Euskal-Zale jakintsuen artean, bat baño geiago min piška bat artu duanik irakurtean On Kanpion'ek diona A.S. Mendiburuz, Euskal-Esnalearen 5<sup>en</sup> zenbakian.

Esaten du alabañan ez dala jarraitu Euskerak dituan arau edo erreglai; artu duala adizkia artzallearentzat, (el paciente por el recipiente). Eta, egia diola erakusteko, jartzen ditu irur gertari edo exemplo; baño, begiratu, izen au bera dakarlarik irur gertarietan.

Argatik iruditzen ba, niri, itz oek egin diotela baten bati imurtzi tñiki bat; ez baita beste liburugille guzien buru-buruan, Mendiburu ipiñiko ez duan Guipuzkoar argiturik, Euskaldun Zizeron dala esango ez duanik.

Nengoala bada ezin igarriaz nola Mendiburu batek egin zezakean orrelako utsa, oartu naiz, Lapurdi guzian eta Bajo-Nabarra'ko erri batzuetan, jendea orrelasen mintzo dala; ez dala eskualde aetan besterik esaten, ezpada: begira gauz oni, begira gizon aei.

Ordu berean gogoak egin dit menturaz Oyarzun'en ere Lapurdin bezela itz egiten duela, izen au, *begiratzea* esan bear duenean.

Ona bada jakindu dedana: Ala Oyarzun'en nola Donoztia'n, ala Araua'n nola Ataune'n *begiretzen* diela gizona eta gauzai.

¿Zer da beraz Mendiburu'k egin duana? Eskribitu ark Oyarzun'go jendeak itz egiten duan bezela.

Demagun Bidasoa'z onunzkoak artua duela orrelako itzegitea España'ko erdaratik, ¿bañon zeñi gogoratuko zaio Bidasoaz arunzkoak ere alañen deuela?

Ez, gauza jakitia, aek ez due ajolarik España'ko erdaraz.

Alaz guziaz ere, ipiñtzen *begiratzea*'ri darraizkon izenak Donostia'n

eta Ataune'n, itsas-aldean eta Goierrian Lapurdin bezela, eta ¿zer du orrek esan nai? Izena bera dala orisen agintzen duana.

*Begiratzea* begia botatzea bezala da. Orain dakuskun izen orrek ¿besterik zeñ dauka berargana artua? Nik ori ere esango nuke, baldin baneuka On A. Kanpion'en jakiunde.

Onezaz gañera Jaun berak dio Zubero'ko Euskaldunak egiten duela aiatatu duan ori baño aundiagoa dan uts bat.

Deukanean artzalletzat (por regimen indirecto), izen bat, jartzen duela izen ura, jarri lezakean bezela adizkia, (el regimen directo); esan bearrean: Ematen dio Pedrori makilla, esaten duela: ematen du Pedrori makilla.

Eta bada ni, bizi izandu naizena asko urtez, Zubero'ko errietan, ezin nagoke esan bage, erri aetan, ala apaiz eta gizon argitu, nola ezeřsorik ikasi ez duan jende, danok itz egiten duela eren itzkerako arauen erara, eta řsit ondo.

Bear badu beraz esan batek eman diola gauzaren bat beste bati, ark esango du: *eman dero*, edo *eman deo*, edo *eman do*; edo oraĩndik izkindean jarri'ta dagoen bezela, *eman deio*. Non ez dan mintzatzen ikasten ari denen bat, edo *uřkara* aztua duanen bat.

Oraĩtře, nik nai ez nukeana, iñoren musu illunik, ukitu ditudalako uts bi oek, gere itzkera ederraren onetan, aiñ lan aundi eta zaillak egin eta egiten dituan Nagusi bikañaren liburuan.

On Arturo Kanpion ¿zeiñen iritzian izango da nerean baño gorago?

B. JOANNATEGUI.

